

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

2122/2026 ebazpena, apirilaren 24koa, Ogasuneko zuzendariarena, Arabako Lurralde Historikoan Iruzuraren aurka Borrokatzeko 2026ko Plana hezurmamitzen duten irizpide orokorrak aditzera ematen dituen

Arabako Foru Ogasunak funtsezko helburu estrategiko hauek ditu: lurralde historikoan iruzur fiskala prebenitzea eta horri aurre egitea, pertsona guztiek gastu publikoei aurre egiten lagundu behar dutela dioen oinarritzko printzipioa betetzen dela bermatzeko, norik bere ahalmek ekonomikoaren arabera.

Iruzur fiskalaren aurkako borrokan gaur egungo erronkei aurre egiteko Arabako Foru Ogasunaren erantzuteko gaitasuna hobetzeko helburuz, 2026. urtean, Arabako Foru Ogasunaren eraginkortasuna eta efizientzia areagotzeko lotutako hainbat ekintza ezartzen, garatzen eta finkatzen jarraituko dugu.

Inguruabar horretan, kontuan hartu behar da Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 112. artikulua honako hau ezartzen duela berariaz: «Urtero, Zerga Administrazioak iruzuraren aurkako plana prestatuko du; plana isilpean edukiko da baina, hala ere, beraren irizpide orokorrak aditzera emango dira».

Helburu horrekin bat, Arabako Foru Ogasunak beharrezkotzat jotzen dituen jarduketara ildo hauek finkatu ditu iruzur fiskalaren aurka modu alibait eraginkorrean borrokatzeko:

- Zergadunek beren zerga-betebeharrak borondatez bete ditzaten sustatzea, informazioa hobetuz, zerbitzuak pertsonalizatuz, kudeaketak sinplifikatuz eta zergadunei laguntza emanez.
- Iruzurra prebenitzea, iruzur arriskuak alde aurretik identifikatuz, prebentzio neurriak hartuz eta horien bilakaeraren aldizkako jarraipena eginez, bai eta herritarren kontzientzia fiskala hezte eta indartzea helburu duten ekintzak ezarri ere.
- Iruzurrezko jokabideak hautematea eta erregularizatzea.
- Zerga-zorren kobrantza kudeatzea, bai borondatezko epearen barruan, bai betearazpenaldian.

Jarduketa horiek gauzatzeko, Arabako Foru Aldundiaren Iruzur Fiskalaren aurka Borrokatzeko Planaren irizpideak lantzen dira urtero.

Hala, 2026. urtean indarrean egongo den Iruzur Fiskalaren aurka Borrokatzeko Planaren jardun ildoak eta irizpideak aurreko urteetan garatu diren jarduerak indartzeko eta sendotzeko tresna dira; aldi berean, Arabako Foru Ogasunak bere eskumenak garatzen dituen testuinguru ekonomiko, sozial eta arauemailerak egokitutako beste batzuk jasotzen dira planean, horrela, iruzurra egiaztatzeko eta ikertzeko lanetan behar diren jarraitutasuna eta uniformetasuna bermatuz.

Azaldutakoarekin bat etorritik, eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 112. artikuluan ezarritakoa betetz, honako hau ebatzi dut:

Arabako Lurralde Historikoan Iruzuraren aurka Borrokatzeko 2026ko Plana osatzen duten irizpide orokorrak onestea (ebazpenaren eranskinean adierazita daude) eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 24a

Ogasuneko zuzendaria
M^a JOSÉ PEREA URTEAGA

ERANSKINA**2026. URTEAN, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN IRUZURRAREN
AURKA BORROKATZEKO PLANAREN IRIZPIDE OROKORRAK****1. SARRERA**

Lurraldeko zerga sistema aplikatzea Arabako Foru Ogasunari dagokio, hain zuzen ere. Hala, zerga iruzurraren aurkako prebentzioa eta borroka dira eskumen hori behar bezala gauzatzeko funtsezko zutabeetako bi. Alderdi horri dagokionez, agerian jarri behar da zergadunei laguntzea dela, aldi berean, iruzur fiskala prebenitzeko ekintza nagusietako bat.

Zerga administrazioen funtsezko helburu estrategikoa da zerga iruzurraren aurka borrokatzea, bai zerga justiziaren printzipioa benetan betetzeari dagokionez, hots, ekitate arrazoienengatik, bai arrazoi ekonomikoengatik; bada, iruzurrak zerga karga bidegabeki banatzen du zerga araudia betetzen duten eta betetzen ez duten pertsonen artean, eta, gainera, arriskuan jartzen du baliabide publikoen nahikotasuna eta sistema ekonomikoen egonkortasuna bera, eta lehia desleialaren faktorea barruratzen du Arabako ekonomian.

Gure zerga sistemaren antolamendua tributuak ordaintzera behartuta dauden pertsonen gaitasun ekonomikoan eta printzipio hauetan oinarritzen da: justizia, orokortasuna, berdintasuna, gehikortasuna edo progresibitatea, zerga kargaren banaketa ekitatiboa eta konfiskaziorik eza. Horrenbestez, iruzur fiskalak zaildu egiten du funtsezko printzipio horiek behar bezala aplika eta gara daitezen.

Iruzur fiskala gertakari konplexua da, eta hainbat faktorek esku hartzen dute bertan; nolahi ere, faktore horiek modu globalean landu behar dira, ez neurri isolatuen bidez. Ikuspegi horretan oinarrituta, 2026. urtean, Iruzurraren aurka Borrokatzeko Planak Arabako Foru Ogasuneko zergak aplikatzeko organoek modu koordinatuan garatzen dituzten ekintza nagusiak jorratzen ditu, zergadun guztiek zerga betebeharrak osorik betetzen dituztela bermatzeko.

Plan hori ekintza nagusi hauetan funtsatzen da:

- Zergadunek zerga betebeharrak borondatez bete ditzaten sustatzea, arreta personalizatuen bidez eta teknologia berriak orokortuz, iruzur fiskalaren aurka prebentzioz jardunez.
- Herritarren kontzientzia fiskala indartzea, zerga betebeharrak betetzeak kalitatezko zerbitzu publikoei heltzeko garrantziaren inguruan hezteko neurrien bidez.
- Zerga arloan garrantzia duen informazioa aztertu eta ustiatzea, betiere eskuragarri dauden iturrietatik lortutakoa, hala nola zerga betebeharrei lotuta dauden pertsonen aitortpenak, eskakizun espezifikoak, eta beste zerga administrazio batzuekiko eta beste erakunde eta entitate batzuekiko informazio trukea eta lankidetzak.
- Zergadunen ezagutza integrala, betebeharrak ez betetzearen arriskuak kudeatzeko aukera ematen baitu, jarduera horri lotutako kontrol eta ikuskapen ekintzen plangintza erraztuz.
- Iruzurra identifikatzea, erabakiak hartzea eta horri aurre egitea ahalbidetzen duten zantzu berriak detektatzeko beharrezkoak diren tresna informatikoak hobetzea eta baliatzea.
- Zerga administrazioaren arloan eskumena duten erakundeen arteko lankidetzak areagotzea.
- Zerga bilketako organoek egindako jarduerak areagotzea, zergapeko pertsonen ordainketa lortzeko, bai borondatezko aldiak, bai betearazpen aldiak.

Aurreko urteko planetan bezala, Arabako Foru Ogasunaren 2026. urteko Iruzurraren aurka Borrokatzeko Plana osatzen duten irizpide orokorrak zergak aplikatzeko organoek garatu beharreko jardueren izaeraren arabera sailkatuta daude. Organo horiek kudeaketa, ikuskaritza eta zerga bilketa dira. Lehenengo bien eginkizun nagusia zergadunen zerga egoera erregularizatzea da, eta zerga bilketako organoena, berriz, zerga zorren ordainketa eskuratzea.

Horrela, honako plan hau osatzen duten irizpide orokorrak jorratzen dituzten jarduketak hiru kategoria handitan sailkatzen dira:

a) Informazioa eskuratzeko jarduketak, hau da, zergen arloan garrantzia duen informazioa lortzeko, normalizatzeko eta aztertzeko jarduketak, zergadunei beren zerga-betebeharrak berez betetzen laguntzeko, aitortutako datuen inkongruentziak detektatzeko eta tributuak aplikatzeko prozeduren xede diren zergapeko pertsonen hautaketa hobetzeko.

Jarduketa horiek, berez, ez dute azaleratutako iruzurraren zenbatekorik emango, baina alde zuzeneko aldia bideratzen dute, eta beharrezkoak dira ondoko aldiei ekiteko, hau da, lortutako informazioari esker atzemandako zerga garrantzia duten egoerak erregularizatzeko eta horiei lotutako zorra kobratzea helburu duten aldietarako.

Ondorioz, jarduketa horiek funtsezkoak dira iruzur fiskalaren aurkako borrokan eraginkorra izan nahi duen edozein zerga administrazioentzat.

b) Prebentzio jarduerak, hau da, iruzurra egitea zailtzen eta horren arriskuak murrizten ahalgintzen diren askotariko neurriak. Besteak beste, arrisku fiskaleko egoeran suerta daitezkeen zergapekoak alde zuzenetik identifikatzeko jarduketak, zerga jardunbide egokiak sustatzeko jarduerak eta gizarte nahiz tributu balioen inguruan kontzientziatzeko eta hezteko jarduketak. Jarduketa horiek guztiak behar bezala ezarri gero, zergapekoak diren pertsonen eta erakundeek iruzurrezko jarduerak egin ditzaten saihestuko da, eta iruzurrari aurrea hartuko diogu. Aldi berean, zergadunei laguntzeko eta informazioa emateko jarduketak garatzen badira, zergadunek jasandako administrazio kargak murriztuko dira eta zerga betebeharrak borondatez betetzeko aukera erraztuko da.

Informazioa eskuratzeko jarduketan inguruan adierazi dugun bezala, prebentzio jarduketek, berez, ez dute azaleratutako iruzurraren zenbatekorik emango, horien helburua iruzur hori gerta dadin saihestea baita.

c) Erregularizazio eta kobrantza jarduketak, hau da, kudeaketa eta ikuskapen organoek garatzen dituzten tributuak aplikatzeko prozeduren xede diren pertsona eta entitate zergadunen egoera fiskala egiaztatu, ikertu eta, hala badagokio, erregularizatzea helburu duten jarduketak, bai eta zergapeko pertsona eta entitateen zorrak borondatezko epean nahiz betearazpen aldian ordaintzeko bilketa organoek garatzen dituzten jarduketak ere. Beraz, alde zuzenetik iruzur egingarriko zerga zorren zenbatekoak erregularizatzea eta kobratzea ahalbidetzen duten jarduketak dira.

Hiru jarduketa mota horiek eraginkortasunez gauzatu badira, beharrezkoak dira, bai informazioaren tratamendu arinagoa eta eraginkorragoa ahalbidetzen duten garapen teknologikoak indartzea, bai Arabako Foru Ogasunaren barruan zergak aplikatzeko organoak koordinatzea eta Foru Ogasunen eta beste organismo edo entitate batzuen arteko erakundeen arteko lankidetzaren sendotzea.

Bestalde, beharrezkoa da lan sistemak eta prozedurak etengabe hobetzeko eta modernizatzeko prozesuan aurrera egin jarraitzea, zergadunek zerga betebeharrak ahalik eta gehien bete ditzaten, informazio eta laguntza politika eraginkor baten bidez.

Ilido beretik, esan beharra dago azken urteotan izugarri areagotu direla eraldaketa digitaleko prozesuak, bai Arabako Foru Ogasunarenak, bai zergadunenak, eta areagotu egin dela telefono bidezko kanalaren eta bide telematikoen erabilera, bai eta bideokonferentziak ere, dela zergadunei arreta egiteko, dela zerga administrazioaren jarduketetan.

Aurreko urteetan adierazi den bezala, oro har, Arabako Lurralde Historikoan iruzurraren aurka Borrokatzeko Plan honek, 2026. urtean egin beharreko jarduketak eta irizpide orokorrak jasotzen dituenak, segida ematen die aurreko urteko planen ikuspegiari, egiturari eta edukiari, eta ikuspegi horrek ezagutza eta esperientzia handiagoa metatzea dakar aurreikusten diren jarduketei oratzeko, eta, beraz, emaitza hobea lortzeko. Gainera, iruzurraren aurkako borrokan hartzen diren neurriak, kasu askotan, zergadunen kolektibo handiei eragin diezaieketen neurriak dira; beraz, egokia da horien ondorioek ekitaldi batean baino gehiagotan irautea, benetan eraginkorrak izan daitezzen.

Nolanahi ere den, aurreko urteetan egindako lan ildoetara jarraitzen bazaie ere, aldi berean, ezinbestekoa da ikuspegi berriak baliatzea eta jardun arlo nahiz eredu berriak garatzea jardura ekonomikoan errealitate berriak agerian jartzen diren heinean, bai eta teknologiaren eta erabilgarri dauden tresnen erabileran eta aprobetxamenduan sakontzea ere.

Hainbat arlotan jasotako informazioa ugarituko denez, hala nola TicketBAI betebeharraren gainekoa, kriptoa aktiboei buruzko informazio eredu berrien gainekoa edo banku sektorearen eta diru elektronikoko erakundeen informazio betebeharraren gainekoa, jasotako informazioa kontrolatzeko eta aztertzeko jarduerak areagotu beharko dira, jakina denez, tresna teknologiko aurreratuak erabiliz.

2. 2026. URTEAN, IRUZURRAREN AURKA BORROKATZEKO PLANEAN AURREIKUSI DIREN JARDUKETAK

2.1. INFORMAZIOA ESKURATZEKO JARDUKETAK.

Zergen arloaz denaz bezainbatean, garrantzia duen zergapekoen informazioa lortzea, normalizatzea eta aztertzea helburu duten jarduketak funtsezkoak dira erregularizazio eta kobrantza jarduketan aurreko aldian, modu eraginkorragoan egiaztatuko diren zergadunak hautatzeko aukera ematen baitute.

Helburu nagusia, beraz, dagoeneko egin diren irregulartasun fiskalak antzemateko beharrezko informazioa eskuratzea da, bai eta irregulartasun horiek erregularizatzen eta kobratzen laguntzea ere.

Hori dela eta, informazio iturri berriak bilatzea eta lehendik daudenak sendotzea eta garatzea dira Arabako Foru Ogasunak zerga iruzurraren aurkako borrokan egiten dituen jarduketan eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko oinarria, azken batean, helbururik behinena zerga sistema bidezkoagoa eta zuzenagoa erdiestea baita. «datawarehouse» motako tresna informatikoak erabiliz, informazio hori ahalik eta ondoen ustiatzea etenik gabe landu da azken urteotan, eta aurten indartu eta sendotu egingo da.

Ildo horretan, aspalditik, Arabako Foru Ogasunak informatika-auditoretzako tekniken erabilera bultzatzen du zergadunen zerga egoera egiaztatzeke eta erregularizatzeko prozeduren garapenean.

Zergadunen ondasunei, eskubideei, errentei edo jardura ekonomikoari buruzko datuak honako informazio iturri hauetatik lortu ohi dira:

– Zergadunek aurkeztutako zerga aitortenak; horietan, beren datuak aitortzen dituzte, baina, era berean, harreman ekonomikoak duten hirugarrenei buruzko informazioa ematen dute.

– Izaera orokorreko informazio aitortenak, kasuan kasuko arauen bidez eskatzen direnak eta, batez ere, jardura ekonomikoak garatzen dituzten pertsonak eta erakundeak aurkezten dituztenak. Horietan, beste pertsona eta erakunde zergadunetatik ezagutzen dituzten zerga arloko datu garrantzitsuak ematen dira, haiekin dituzten harreman ekonomiko, profesional edo finantzarioengatik.

– Zerga Administrazioaren banakako errekerimenduak direla bidez, zergapekoak diren pertsona jakin batzuei helarazten zaizkien informazioa biltzeko hautapen jarduketak, baldin eta informazio hori emateko betebeharra ezarrita ez badago, oro har, aurreko paragrafoan aipatzen diren aitorten informatiboen bidez.

– Datuak beste zerga administrazio batzuekin trukatzeko prozedura automatikoen bidez eta gainerako zerga administrazioen jarduketan ziozko gainerako bat-bateko trukeen bidez eskuratzen den informazioa, bai eta erakunde eta entitate askorekin formalizatutako lankidetzak hitzarmenen bidez eskuratutakoa ere.

Informazioa lortzeko iturri horiek guztiak funtsezko tresnak dira iruzur fiskalaren arriskuak detektatzeko eta egiaztatu beharreko zergapekoak ahalik eta ondoen hautatzeko, bai eta zergapekoari beren zerga betebeharrak borondatez betetzeko informazioa eta laguntza emateko ere.

Era berean, Arabako Foru Ogasunean, 2026an, aurreko urteetan bezala, baliabide material eta giza baliabide esanguratsuak erabiliko dira plataforma teknologikoak garatu eta finkatzeko, datu bolumen handien prozesamenduak eta datu zientziaren teknika berrien aplikazioak dakarten erronkei irtenbidea emateko. Horren haritik, adierazi behar da Arabako Foru Ogasunean jasotzen ari den informazio bolumena inoiz baino gehiago handitu dela azken urteotan, SII (Informazioaren Berehalako Hornidura) eta SILICIE (Zerga Berezien Kontabilitate Liburuaren Berehalako Hornidura) ezartzearen ondorioz, informazioa trukatzeko nazioarteko akordioen ondorioz, Europar Batasunaren erregulazioaren ondorioz, eta TicketBAI sistema ezartzearen ondorioz.

2026an, informazioa eskuratzeko jarduketak garatuko dira honako arlo hauetan:

1) Zerga arloan garrantzia duten informazioa trukatzeko nazioarteko akordioak ustiatzea, atzerrian dauden ondasun eta eskubideak detektatzeko, baldin eta Arabako Foru Ogasunaren pertsona eta erakunde zergadunen titulartasunekoak badira.

Nazioartean, zergadunen mugikortasuna eta mugaz gaindiko transakzioak areagotu egin direnez, zerga administrazioek ere lankidetzaren areagotu dute zerga betebeharrak betetzen direla bermatzeko eta iruzur fiskala murrizteko. Hori dela eta, Europar Batasunak eta Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) estatu kideen artean informazio ekonomikoaren gardentasuna areagotzeko interes komunaren isla izan da garrantzi handiko informazioa automatikoki trukatzeko hainbat tresna sortu eta garatzea.

Hala, Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauan, zerga arloko administrazio lankidetzari buruzkoan, zenbait aldaketa egin dira azken urteotan, Europar Batasunak zerga gardentasunaren arloan abiarazi dituen ekimen berriei bide emateko. Aldaketa horiek zabaldu egin dute informazio truke automatikoaren aplikazio eremua, finantza kontuei, mugaz haraindiko eragina duten aurretiazko tributazio akordioei, herrialdez herrialdeko txostenei, zergak ordaintzeko mugaz gaindiko tresnei, lineako plataformen operadorei, kriptoa aktiboak eta zerga osagarriari dagokienez, DAC (Administrazio Lankidetzari buruzko Europar Batasunaren Zuzentaruak) izenez ezagutzen direnak baliatuz. Gaur egun, estatu kideetako zerga agintaritzek lankidetzaren tresna gehiago dituzte iruzur, ihes eta elusio fiskalaren mota guztiak detektatzeko eta horiei aurre egiteko.

Europar Batasunaren ekimen horiek ELGAK garatutako modu paraleloan eta osagarrian hartu dira.

Informazio truke automatikoa EBko herrialde bateko zerga administrazioak EBko beste herrialde bateko zerga administrazioari aurrez definitutako informazioa sistematikoki komunikatzea datza. DAC zuzentaruak eta horien aldaketek, argigarri gisa, informazio truke automatikoari buruzko informazio hau jasotzen dute:

– DAC 1: zerga agintaritzek honako aktibo eta diru sarreraren kategoria hauei buruz bildu behar duten informazioa dakar: enpleguaren errentak, pentsioen errentak, zuzendarien ordain-sariak, ondasun higiezinaren errentak eta jabetza eta bizi aseguruaren produktuak.

Era berean, zaindu gabeko dibidenduei buruzko informazioa 2026an komunikatuko da lehen aldiz, 2025eko zerga ekitaldiari doakionez.

– DAC 2: EBko finantza erakundeek kontuen saldoak eta kontuan egiaztatutako sarreraren berri emango dute (adibidez, dibidenduak, interesak, aktibo finantzarioak saltzetik edo itzultzetik eratorritako sarrera gordinak eta eskudiruzko balioa duten aseguru kontratuak).

Finantza informazioaren truke automatikoari gagozkiola, honako hauek ere aipatu behar ditugu: Espainiako Erresumaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko akordioa, nazioarteko zerga betetzea hobetzeko eta Foreign Account Tax Compliance Act-FATCAren inplementazioa (Madrilen formalizatu zen, 2013ko maiatzaren 14an), eta Agintaritzaren Eskudunen arteko Alde Anitzeko Akordioa, finantza kontuen informazioa automatikoki trukatzeari buruzkoa (Berlinen formalizatu zen, 2014ko urriaren 29an).

– DAC 3: estatu kideetako zerga administrazioei beste estatu kide batzuek emandako mugaz gaindiko eragina duten zerga ebazpen jakin batzuei buruzko informazioa ematea da helburu nagusia; besteak beste, transferentzia prezioei buruzko aurretiatzko balorazio-akordioak, «APA» izenez ere ezagutzen direnak.

2023. urtean emandako aldaketa etorri zen arte, soilik pertsona fisikoei buruzkoak ziren mugaz gaindiko ebazpenak zeuden era esplizituan truketik kanpo. Hala eta guztiz ere, DAC 8ren bidez, informazio truke automatikoa adostu zen pertsona fisikoei buruzko ebazpen jakin batzuen inguruan, honako baldintza hauek betetzen baziren:

– Mugaz gaindiko ebazpen baten eragiketaren edo eragiketa sortaren zenbatekoa 1.500.000,00 eurotik gorakoa izatea (edo beste moneta batean balioidea den zenbatekoa); edo

– Mugaz gaindiko ebazpenak zehaztuko du pertsona bat, zerga ondorioetarako, ebazpena eman duen EBko herrialdean bizi den ala ez.

Xedapen berri horiek 2026ko urtarriletik aurrera emandako, aldatutako edo berritutako mugaz gaindiko ebazpenei buruzkoak baino ez dira izango.

2026an, horri buruz jasotako informazioak osatu egingo ditu foruari atxikitako zerga administrazioetan dauden datuak, eta aukera emango du mugaz haraindiko eragina duten ebazpen fiskalek izan ditzaketen gorabeherak sakonago aztertzeko.

– DAC 4: enpresa multinazionalen herrialdez herrialdeko txostenak. Txosten horietan, EBko zerga-administrazioei talde bat osatzen duten erakundeen jarduerari, aktiboari, sarrerei eta tributazioari buruzko informazioa ematen zaie, Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako, talde horiek jarduten duten jurisdikzio fiskal bakoitzeko agregatuta.

DAC 4 aplikatzen zaie 750 milioi euroko edo gehiagoko guztizko diru sarrera bateratuak eta EBN jarduera duten enpresa multinazionalen taldeei. Herrialdez herrialdeko txostenak zerga ordainketaren ikuspegi orokorra ematen du taldeko Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako, eta talde horren transferentzia prezioen politikarekin lotutako balizko arrisku fiskalak detektatzeko aukera ematen du.

2026an, ELGAK herrialdez herrialde egindako txostenetan jasotako informazioaren erabilera egokiari buruzko gidaren arabera jasotako informazioa aztertuko da.

– DAC 6: zergen ikuspegitik kaltegarriak izan daitezkeen mugaz gaindiko tresnak. Alerta goiztiarra bidaltzen die estatu kideetako zerga-administrazioei, mugaz gaindiko tresnei buruzko informazioarekin. Informazio hori abusu fiskalaren arriskuak egiaztatzeko erabil dezakete agintari fiskalek, zerga ihesa, itzurpena eta planifikazio fiskal oldarkorra ere aintzat hartuta.

– DAC 7: lineako plataformen saltzaileek sortutako diru sarrerak. Jakinarazteko betebeharraren barruan dauden zerga ondorioetarako EBko herrialde batean bizi diren plataformetako operadoreak eta EBko herrialde batean eratuta, kudeatuta edo establezimendu iraunkor bat dutenak.

Jakinarazteko betebeharra aipatutako irizpideetako bat ere betetzen ez duten baina EBN merkataritza jarduerak egiten dituzten plataformetako operadoreei ere aplikatzen zaie (adibidez, EBkoak ez diren plataformetako operadoreei), EBN bizi diren informazio komunikazioari lotutako saltzaileak dituztenean.

Betebehar horrek bezeroei ordainaren truke saltzaileekin konektatzeko aukera ematen dieten plataformei eragiten die, edo estatu kide batean kokatutako ondasun higiezin baten alokairua dakarten plataformei.

– DAC 8: kriptotiboei buruzko informazioa. Kontseiluaren 2023/2226 (EB) Zuzentarauak, 2023ko urriaren 17koak, zerga arloko administrazio lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaruak aldatzen du.

Aldaketa horrek berrikuntzak dakartza kriptoaikiboari eta diru elektronikoari buruzko informazioa trukatzeari dagokionez. Estatu kide bakoitzak, beranduenez ere 2025eko abenduaren 31n, Kontseiluaren 2023/2226 (EB) Zuzentarau honetan ezarritakoa betetzeko beharrezkoak diren lege, erregelamendu eta administrazio xedapenak onartu eta argitaratu behar izan ditu, eta xedapen horiek 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko ditu.

– DAC 9: arau berriak ezartzen ditu, zerga osagarriaren informazio aitortpenari buruzko informazio trukea errazteko eta, horrela, 2022/2523 (EB) Zuzentaruaren ezarritako aitortpen betebeharraren aplikazio operatiborako esparrua ezartzeko.

Enpresa multinazionalak zergapetu gabeko edo zergapetze txikiko herrialde edo lurraldeetara etekinak eramateko aukera ematen dieten jarduketak fiskalei amaiera emateko ahalegin etengabea, ELGAK nazioarteko neurri fiskalen multzo bat garatzen jarraitu du. Neurri horien artean, enpresa-irabaziak zergapetzen dituzten zerga tasei dagokienez (adibidez, Sozietateen gaineko Zerga) lehia fiskala mugatzea bilatzen dutenak daude, gutxieneko ezarpen maila globala ezarriz, negozio zifra bateratuaren zenbateko garbia 750 milioi eurokoa edo handiagoa duten talde multinazionalentzako.

Legegintza politikaren helburu hori «Ekonomiaren digitalizaziotik eratorritako zerga erronkak Zerga oinarriaren higaduraren aurkako ereduak (bigarren zutabea)» izeneko dokumentuak ekarri zuen. Dokumentu hori 2021eko abenduaren 14an onartu zuen ELGA/G20 Esparru Inklusiboak, BEPSri buruzkoak, eta Europar Batasuneko estatu kideek bat egin zuten horrekin.

Aurrekoari lotuta, 2022/2523 (EB) Zuzentaruak zerga osagarri bat ezarri du elkarri lotutako bi arauen bidez. Arau horien arabera, bermatu egiten da Europar Batasuneko estatu kideetan finkatutako talde nazional handiek edo matrizea Europar Batasuneko estatu kide batean duten talde multinazionalak ateratako errentek, azken kasu horretan, bai taldeko enpresak Europar Batasunean kokatuta badaude, bai Europar Batasunetik kanpo badaude, ehuneko 15eko gutxieneko tasa globala izango dutela. Elkarri lotutako arau horiek errentak sartzeko araua eta behar beste kargatu gabeko mozkinen araua dira, eta bigarren araua lehenengoaren euskarri gisa erabiltzen da.

Horrela, talde nazional handiak edo talde multinazionalak osatzen dituzten erakundeek zerga tasa benetakoa, jurisdikzio jakin batean, ehuneko 15etik beherakoa denean, zerga gehigarri bat bilduko da, zerga osagarri gisa deitua, ehuneko 15eko gutxieneko tasa globalera iritsi ahal izateko, dela errentak sartzeko arauaren bidez, dela, bestela, behar bezala kargatu gabeko mozkinen arauaren bidez.

Zerga osagarriaren lehen aitortpena 2026ko ekainaren 30a baino lehen aurkeztu beharko da, 2024ko zerga ekitaldiko kontuen gainean.

Hala, 2022/2523 (EB) Zuzentaruak zerga osagarriaren informazio aitortpenak aurkezteko arauak ezartzen ditu, eta, oro har, zuzentaru horri loturik dauden enpresa multinazionalen taldeek eta tamaina handiko talde nazionalak jakinarazi beharreko informazio kategoriak deskribatzen ditu. Zerga administrazioek zerga osagarriaren informazio-aitortpen horiek behar dituzte arriskuen ebaluazio egokia egiteko, zerga zorraren zehaztapen egokia ebaluatzen eta enpresa multinazionalen taldeek eta tamaina handiko talde nazionalak ezarritako arauak behar bezala aplikatzen ote dituzten gainbegiratzeko.

Azken batean, 2026an, aurreko urteetan bezala, Arabako Foru Ogasunak jasotako datuen egiazkotasuna begiratu du, informazioaren kalitatea hobetzeko helburuz izan daitezkeen okerrak agerian jartzeko eta informazioa lortzeko eta, hala badagokio, erregularizatzeko jardura egokiak egingo ditu iruzur fiskala egin izanaren zantzuak dituzten pertsona eta erakunde zergadunei dagokienez.

2) Nazioarteko fiskalitatearen eremuan diharduten zergapekoen azterketa.

Nazioarteko iruzurraren prebentzioa da Arabako Foru Ogasunaren kezka garrantzitsuenetakoa, azken urteetako Arabako Iruzuraren aurkako Borrokarako Planetan behin eta berriz agertzen den alderdietako bat delarik.

Jarduera ekonomikoa mundu mailan nazioartekotu eta integratu denez, ekonomiaren digitalizazioaren garapenak areagotuta, nazioarteko eragiketek funtsezko garrantzia dute egungo ekonomian. Horrez gain, horrelako eragiketek berezko duten arrisku fiskala dela eta, 2026an, lehen-tasunez jorratu beharreko elementuak dira berriro ere Arabako Foru Ogasunaren jarduketetan.

Zerga itunei lotutako neurriak aplikatzeko Alde Anitzeko Hitzarmena indarrean sartu zenetik aukera dago nazioarteko hitzarmenak aldatzea beharrezkoa duten BEPS proiektuko lanei datxezkien neurri guztiak pixkanaka-pixkanaka ezartzeko.

Ildo horretan, egiaztapen jarduketek zainduko dute arau horiek benetan aplikatzen direla, baldin eta arau horiek ezarrita egotea nahikoa izan ez bada elusio jokabideak ezabatzeko.

2026an, aurreko urteetan bezala, informazioa lortzeko jarduketek helburua izango da zerga egitura artifizialak sortuz zergak ez ordaintzea helburu duten finantza ingeniarietako edozein tresna aurkitzea.

Bereziki, kanpoko egiturak ezartzeak edo Arabatik kanpoko eragiketak itxuraz kokatzeak eragindako zerga oinarrien higadura detektatzeko jarduketak egiten jarraituko da, baldin eta eragiketen bidez Arabako Foru Ogasunean zergak ordaindu behar dituzten onurak beste jurisdikzio batera bideratzen badira.

Arreta berezia jarriko da zenbait zergadunek erabil ditzaketen eta arrisku fiskal handia izan dezaketen egiturak eta jokabide jarraibideak identifikatzean, hala nola asimetria hibridoak, nazioarteko gardentasun fiskala, finantza gastuen kengarritasuna edo hitzarmen fiskalen abusua.

Zehazki, arreta berezia jartzen jarraituko dugu Araban bizi diren zergadunek zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmenak eta Europar Batasuneko araudia aplikatzean, hitzarmen horien edo Europar Batasuneko araudiaren klausula jakin batzuen eta zenbait arau nazionalen arteko elkarrekintzak zergapetze nuluko eta zerga elusioko egoerak erraztu ez ditzen. Ildo horretan, aztertzen jarraituko dugu Arabako zergadunek gure ordenamendu juridikoan araututako tresnak behar bezala aplikatzen dituztela, atzerrian errentak lortzeagatik nazioarteko zergapetze bikoitza ezabatzeko xedez.

Aurreko urteetan bezala, lotutako pertsonen eta erakundearen artean egindako eragiketen tributazio zuzena eta talde multinazionalen artean dauden transferentzia-prezioen zehaztapena aztertzeko jarduerak egingo dira. Horretarako, arreta berezia eskainiko zaio emandako informazioari, besteak beste, «herrialdez herrialdeko txostenaren» bidez.

Era berean, Arabako Foru Ogasunak, 2026an, informazioa lortzeko jarduketak egingo ditu Arabako zergadunei buruz, baldin eta pertsona edo entitate ez-egoiliarrei edo kooperatibak ez diren jurisdikzioetat hartzen diren herrialde eta lurraldeei lotuta badaude. Jarduera horiek garatzeko, mundu-mailako enpresa-informazioaren datu-baseak, lehen aipatutako nazioarteko truke automatikoen bidez jasotako informazioa eta Sozietateen gaineko Zergaren aitortpenen informazioa erabiliko dira.

Gainera, 2026. urtean, zergadunek eta bitartekariak zerga administrazioari informazioa emateko betebeharra behar bezala betetzen dutela egiaztatzeko jarduketak egingo dira, zerga plangintzako mugaz gaindiko prozedurei dagokienez, prozedura horietan esku hartzen dutenean edo parte hartzen dutenean Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauan zehaztutako ezaugarrietako bat betetzen badute (zuzentarau hori zerga arloko administrazio lankidetzari buruzkoa da eta 77/799/EEE (DAC6) Zuzentzaraua indargabetzen du, 234, 235 eta 236 ereduaren bidez).

Nazioartean presentzia duten taldeei dagokienez, nabarmentzekoa da 2025ean Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2024ko azaroaren 13ko Laugarren Akordioaren hitzarmen osagarria onartu dela, foru ogasunak nazioartean duten presentzia eta ikusgaitasuna bermatzeko. Akordio horri esker, Arabako Foru Ogasunak indartu egingo du egoitza fiskala bere lurraldean duten zergadunei eragiten dieten prozeduretan duen partaidetza.

Azkenik, Arabako Lurralde Historikoan egiten dituzten jardueri dagokienez, pertsona eta entitate ez-egoiliarrek lortutako errenten tributazio zuzena egiaztatuko da.

Jarduera horietan, Arabako zergadunek Espainiako lurraldean bizi ez direnei ordaindutako errenten tributazioaren erregularatasuna egiaztatuko da, bai establezimendu iraunkor baten bidez egiten badira, bai establezimendu hori existitzen ez bada. Bereziki, kanonen, royalty direlakoan eta dibidenduen ordainketak begiratuko dira, bai eta entitate ez-egoiliarrek partaidetza sozialak edo akzioak eskualdatzeagatik agerian jarritako ondare irabaziak ere.

Era berean, informazioa lortzeko jarduketak egingo dira, Arabako Lurralde Historikoan halakotzat jo ez diren atzerriko enpresek establezimendu iraunkorrak dituztela antzemateko.

Egoitza Araban duten establezimendu iraunkorrei dagokienez, emaitzak behar bezala esleitu diren egiaztatzeko jarduketak egingo dira.

3) Foru administrazioekin, lurralde erkidekoekin eta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetakoekin informazioa trukatzeko aldi behin egiten diren prozesuak sendotzea, garatzea eta areagotzea, bai eta zerga arlokoak ez diren beste administrazio, organismo eta erakunde publiko batzuekin zergen arloan garrantzia duten informazioa trukatzeko prozesuak zabaltzea eta hobetzea ere.

Ildo horretan, nabarmentzekoa da 2023an Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren eta Arabako Foru Ogasunaren eta gainerako foro lurraldeen arteko informazio truketarako hitzarmena onartu zela. Hitzarmen horretan jasotako beste alderdi batzuen artean, zerga administrazio bakoitzaren eskumeneko zergadunei buruzko informazioa aldi-aldi eta elkarri trukatzeko gain-informazio hori indarrean dagoen Ekonomia Itunaren 4. artikuluan xedatutakoaren besean egin zen-, honako hauek nabarmendu behar dira: betebeharrak fiskalak dituzten zordunei buruzko ondare informazioa trukatzeko, betearazpen aldiak, eta zerga bereziak eta ingurumen zergak kudeatzeko aplikazioetara sartzeko modua izatea, betiere trukatzeko informazioaren eta erabilgaitasunaren kontrola eta segurtasuna zainduz.

Arabako Foru Ogasunak eta gainerako foro ogasunek EAEko Administrazio Orokorrekin duten harremanaren esparruan, 2026an aurreikusita dago aurretiaz adostutako aldiakoko informazioa biltzen eta ustiatzen jarraitzea, batez ere, Eusko Jaurlaritzaren Turismo Enpresen Erregistroari buruzkoa. Informazio hori 2025etik aurrera eskura dezakete foru-ogasunek, NISAE nodoan (Euskadiko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoa) hornitutako elkarreragingarritasun zerbitzu baten bidez. Era berean, urtean zehar sortzen diren aldiakoko informazio eskari berriak, zerga iruzurraren aurkako borrokan baliagarriak direnak, nola gauzatu aztertuko da.

4) Informazioa lortzeko beste formula batzuk eguneratzea, aldiakokoak eta arauz erregulatutakoak, hala nola Arabako Zergen Foru Arau Orokorrean ezarritako informatzeko betebeharrak orokorra betetzeko oro har ezarritako informazio eredu bidez ezartzen direnak.

5) Zerga garrantzia duten informazio biltzaile masiboak egingo dira nahiz eta informazio eredu bidez, oro har, informazio hori emateko betebeharrak ezarrita ez egon. Mota horretako jarduketak helburua da arrisku fiskal handiko sektore ekonomikoetan lan egiten duten zergapeko pertsonen buruzko zergen arloko garrantzia duen informazioa gehitzea eta hobetzea.

Besteak beste, jarduketak hauek egingo dira:

a) Informazioa lortzeko jarduketak, pertsona eta erakunde zergadunek Ekonomia Itunaren zergen inguruan ezartzen diren eragiketen kokapen konexioko puntuak behar bezala aplikatzen dituztela egiaztatzeko, bereziki, Arbitraje Batzordearen ebazpenetan eta Auzitegi Gorenaren epailetan balio erantsia sortzen den lekuari buruz finkatutako interpretazio irizpideekin bat etorritik.

Jarduketak egingo dira Arabako Lurralde Historikoan lantokiak dituzten, langile kopuru handia duten eta Arabako lurraldean Sozietateen gaineko Zergaren eta BEZaren aitortzen aurkeztu ez duten sozietateen inguruan.

b) Balio erantsi handiko zerbitzuak emateko jardueri buruzko informazio eskakizun espezifikoa, eta, bereziki, azken kontsumitzaileen kolektiboari zuzenduta egoteagatik Zerga Administrazioak beste bide batzuetatik informazio nahikorik ez duenean eta iruzurrezko jardunen zantzuak daudenean.

c) Ikuspegi fiskaletik ez-kengarriztat jotako gastuak eta jarduera ekonomikoekin zerikusirik ez duten kontsumo pribatuak antzemateko informazio eskakizun espezifikoa. Era berean, informazioa lortzeko jarduketa espezifikoa egingo dira, jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek ordezkari gasteetatik eta opariekin lotutako gasteetatik behar bezala kendu dituztela egiaztatzeko, bai zuzeneko zergetan, bai zeharkakoetan.

d) Higiezinaren sektorean egindako eragiketak ikertuko dira, eta, bereziki, eraikinak birgaitzeko obraren tributazio zuzena, Balio Erantsiaren gaineko Zerga behar bezala zergapetzeari dagokionez.

6) Finantza erakundeek informazio ereduetan emandako informazioa, kontuetako mugimendu garrantzitsuak eta txartel bidezko kobrantzak aztertuko dira, eta banku sistemen bidezko ordainketak onartzen ez dituzten pertsonak eta erakundeak ikertuko dira.

Era berean, arreta berezia eskainiko zaie informazioa emateko betebeharrak orokorretatik kanpo geratzen diren finantza zerbitzu deszentralizatuak eskaintzen dituzten erakundeei, erakunde horien bidez jarduten duten balizko zergadunak detektatzeko, haien erabilera elusio edo iruzur bidez izan ez dadin.

Horri dagokionez, agerian jarri behar da finantza eragiketei buruzko informazio betebeharrak nagusien eremu objektiboa zabaldu egin dela, eta banku edo kreditu trafikoa aritzen diren honako erakunde hauek ere kontuan hartu direla:

- Kreditu erakundeak.
- Diru elektronikoko erakundeak eta ordainketa erakundeak.
- Finantza erakundeen Espainiako sukurtsalak.
- Atzerrian kokatuta dauden eta Espainian establezimendu bidez edo zerbitzuak askatasunez emateko araubidean jarduten duten erakundeak.

7) Ekonomia digitalaren eta negozio eredu berrien esparruan informazioa lortzeko jarduketak.

Teknologia berriak enpresa eremuan aplikatzea eta ekonomiaren digitalizazio prozesu etengabeari lotutako negozio eredu berriak ugaritzea erronka handiak dira zerga kontrolari dagokionez, bai negozio eredu berri horiek hautemateari dagokionez, bai zerga ordainketa egokia dela egiaztatzei dagokionez. Horrela, kanal digitalen bidez –marketin digitala ere aintzat hartuta– osorik edo zati batean garatutako jarduerak gero eta garrantzi eta pisu handiagoa dute ekonomian.

Ekonomiaren digitalizazioak aintzat hartzen ditu, besteak beste, merkataritza elektronikoa (hau da, produktu fisikoak edo zerbitzuak sarearen bidez truke plataforma espezifikoen bidez saltzea), ordainketa zerbitzuak edo plataformak, aplikazio eta produktu digitalak deskargatzeko zerbitzuak, lineako publizitatea, sareko plataforma parte hartzaileak («sare sozialak») edo hodeiko programazioa («cloud computing»).

Kanal digitalen gero ezarpen handiagora egokitzeko, Kontseiluaren 2021/514 (EB) Zuzentzarauak, 2021eko martxoaren 22koak, DAC 7 izenez ezagutzen denak, administrazio lankidetzaren eremu berrietara zabaltzea du helburuetako bat, ekonomiaren digitalizazioak dakartzen erronkei aurre egiteko eta zerga administrazioei zergak modu hobean eta eraginkorragoan biltzen laguntzeko.

Arabako Foru Ogasunak gai hori erregulatzen duten nazioarteko arauen transposizioa egin du bere ordenamenduan, eta oinarritzko gidalerroak ezarri ditu elkarren laguntzaren eremuan behartuta dauden plataformako operadoreen informazioa bermatzeko, behar bezalako arreta emateko eta erregistratzeko betebeharrak dagokienez.

Azaldutakoaren ondorioz, 040 ereduaren bidez aurkeztutako informazioa egiaztatuko da. Eredu horren bidez, informazioa ematera behartuta dauden plataformako beste operadore batzuen erregistroan alta, aldaketa eta baja emateko zentsu aitortpena egiten da.

Bestalde, 238 ereduaren bidez, beren enpresa edo lanbide jarduerak egiaztatzeko eta ikertzeko eskumena Arabako Foru Ogasunari dagokion plataformako operadoreek nahitaez jakinarazi behar diote Ogasunari, kontraprestazio baten truke, ekitaldian zehar jarduera hauetakoren bat egin duten saltzaileei buruz:

- Ondasunak saltzea.
- Zerbitzu pertsonalak ematea.
- Ondasun higiezinak, bizitegi erabilerakoak zein merkataritzakoak, eta aparkalekuak alokatzea edo aldi baterako lagatzea.
- Edozein garraio bide errentan ematea.

Zehazki, Arabako Foru Ogasunaren 2026ko ekintzetako bat izango da informazio aitortpen honen bidez lortutako informazioa erkatzea, bai eta trukean jasotakoa ere, administrazioan dauden gainerako datuekin, iruzur arriskuaren zantzuak dituzten pertsonen eta erakundeen datuak jarduketak detektatzeko eta, hala badagokio, bideratzeko.

Era berean, Arabako Foru Ogasunak lanean jarraituko du 2026an, gainerako foro ogasunekin eta haiei atxikitako zerga administrazioekin koordinatuta, informazio betebeharrak hau behar bezala betetzeari dagokionez: bai atzerrian kokatutako diru birtualaren titularrak diren zergadunak, bai hirugarrenen izenean zerbitzuak ematen dituzten Arabako Lurralde Historikoko pertsona eta erakundeei, diru hori edukitzea eta erabiltzea ahalbidetzen duten gako kriptografiko pribatuak babesteko, bai informazio betebeharrak horren bidez eskuratutako diru birtualaren titularrak duten saldoen informazioa egiaztatzeko eta kontrastatzeko ekintzak egiteko metodologia eta prozedurak prestatze aldera.

Zehazki, zergapekoek 2023an onartutako informazio aitortpenak behar bezala aurkeztu dituztela egiaztatzeko jarduketak egingo dira, hala nola: atzerrian jarritako diru birtualari buruzko informazio aitortpena (721 eredua), diru birtualaren saldoei buruzko informazio aitortpena (172 eredua) eta diru birtuala erabiliz egindako eragiketei buruzko informazio aitortpena (173 eredua).

Hala, informazioa eskuratzeko errekerimenduak egingo zaizkie moneta birtualean inbertitzeko eta ordaintzeko bitarteko enpresei, era horretako kriptoaktiboen inbertitzaileen gaineko ezagutza, errentaren eta ondarearen iturriarena eta inbertsio horietatik lortutako etekin edo gainbalioena areagotzeko.

Arabako Foru Ogasunak beharrezkoa diren jarduketak egingo ditu 2026an, bai operadore horien informazio betebeharrak behar bezala betetzen dituztela egiaztatzeko beharrezkoa den egokitzapena gauzatzeko, bai datu horiek trukatzeko eta tratatzeko, Arabako zergadunak buruzkoak direnean.

8) Informazioaren Berehalako Hornidura (SII) eta Zerga Berezien Kontabilitate Liburuen Berehalako Hornidura (SILICIE) sistemen bidez jasotako informazioa aztertzea eta ustiatzea.

9) Sistema informatikoen kontrola areagotzeko da, zergadunen bulego edo lokaletara bertaratzeko beharrezkoa duten auditoria informatikoko jarduketak indartuz, informazioa biltzeko asmoz.

Gainera, jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergapekoek zentsu aitortpeneko betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko jarduerak egiten jarraituko da, bai eta aitortu gabeko jarduerak atzematea helburu duten jarduketak egiten ere.

Informazioa lortzeko jarduketa horietan guztietan, Arabako Foru Ogasunaren tributuen aplikatzeko eskumena duten organoek oreka egokia lortzen saiatuko dira iruzur fiskalaren aurkako borrokan beren jardunak duen eraginkortasunaren eta datu pertsonalak babesteko araudian datuen proportzionaltasun eta kalitate printzipioarekiko errespetuaren artean.

2.2. IRUZURRA PREBENITZEKO ETA ATZEMATEKO JARDUKETAK.

Kategoria honetan sartzen dira, batetik, iruzurrezko jokabideak egin aurretik detektatzeko eta saihesteko kontrol jarduketak, eta, bestetik, zerga betebeharrak borondatez eta berez betetzen laguntzeko jarduketak, herritarren zerga kontzientzia indartzeko eta zergadunei laguntza eta informazioa emateko ekintzen bidez.

Ildo horretan, Arabako Foru Ogasunak honako jarduera hauek garatuko ditu 2026an:

1) Garapen teknologikoetan oinarritutako proiektuak, jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunen kontrol handiagoa izateko.

Jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona edo erakunde guztien zerga ordainketa osorik kontrolatzeko sistemak ezartzea eta garatzea, eragiketen tamaina edo bolumena edozein izanik ere, iruzurraren prebentziorako ekimena da, eta foro ogasunek sustatu dute azken urteotan.

Ekimen hau aurrera eramateko, oso garrantzitsua da aurrerapen teknologikoak erabiltzea, bai herritarrei zerga betebeharrak betetzen laguntzeko, bai betebeharrei ihes egiten diete zergadunen iruzurra jazartzeko.

Eremu horretan, honako jardun eremu hauek garatzen jarraituko dugu:

I. TicketBAI sistema.

Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak TicketBAI proiektuan lanean aritu dira 2016az geroztik. Proiektu horren helburua da jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten pertsonen eta erakundeek egindako salmenta eragiketa guztien aitorpena ziurtatzea.

Betebehar hori gure inguruko herrialdeen esperientzian oinarritu da, ELGAK salmenten ezabatze elektronikoa aurre egiteko emandako gomendioei jarraiki, bai eta ihes eta iruzur fiskalari aurre egiteko tresna teknologikoen erabilerrari buruz ere.

Proiektu honen helburua da betebehar legal eta tekniko batzuk ezartzea, zerga administrazioak jarduera ekonomikoen diru sarrerak kontrolatu ahal izan ditzan, eta, bereziki, azken kontsumitzaileei ondasunak edo zerbitzu prestazioak ematen dizkieten heinean horiek ezkutatzeko joera duten sektoreetan kokatutako jarduerak, neurri handi batean, eskudirutan kobratzen direnak.

Lortutako informazioa oso baliagarria izan da zergak behar bezala aplikatzeko, zergadunei aitorpenak betetzea errazten duten baliagarritasun berriak eskaini baitzaizkie, hala nola zerga administrazioak jasotako fakturen zerrendak eta, batez ere, aldiaren laburpena, bidalitako fakturen ondorioz beren autolikidazioetan jaso beharreko zenbatekoak egiaztatzeko.

Tresna horiek Zerga Administrazioari berari ere baliagarri zaizkio, bai aldizkako egiaztapenak egiteko, bai datuaren behatoki bat garatzeko, zerga kontroleko planak egiten laguntzeari begira.

TicketBAI sistemaren helburua da bitartekoak ezartzea, fakturazio gailuek jaulkitako jatorrizko salmenta erregistroak gordetzea eta Zerga Administrazioak horien berri izan dezan bermatzea, hau da, azken kontsumitzaileen kolektiboari igorritako egoera berean eta eduki berarekin.

2022an, TicketBAI sistema nahitaez ezarri zen jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona eta erakunde guztientzat, eta, beraz, urte horretatik aurrera Arabako Foru Ogasunera bidalita daude jaulkitzen diren fakturei dagozkien fitxategiak.

TicketBAI sistemaren ezaugarri nagusia da fakturazio programek egokituta egon behar dutela fitxategi bat sor dadin, jarduera kontrolatzeko behar den zerga-informazio guztiarekin, faktura bakoitza egin aurretik. Faktura egin ondoren, fitxategia Ogasunera bidaltzen da. Hartzaileek jasotzen duten fakturan TicketBAI sistema erabiltzen ari dela egiazta dezakete, bi elementu berri agertzen baitira: QR kode bat eta kode alfanumeriko bat, faktura bakoitza modu unibokoan identifikatzeaz gain, hura Foru Ogasunean behar bezala aitortu dela egiaztatzeko aukera ematen duena. Horrela, gainera, foro lurraldeetako zergadun guztien zerga kontzientzia indartzea lortzen da, bai ondasunen eta zerbitzuen hornitzaileena, bai kontsumitzaile eta erabiltzaileena.

TicketBAI sistema indarrean hasi zenetik, Arabako Foru Ogasunak FakturAraba izeneko web aplikazioa diseinatu eta jarri zuen Arabako zergadunen eskura, guztiz doakoa, fakturak igortzeko aukera ematen duena, legez ezarritako estandarrak behar bezala betez. Arabako Foru Ogasunaren azken datuen arabera, Arabako zergadunen ehuneko 55ek etengabe erabiltzen dute aplikazio hori, eta ehuneko 42k era eskusiboan.

Aldi berean, Software Bermatzailearen Erregistroa sortu zen. Bertan, araudiak eskatzen dituen baldintza tekniko eta funtzionalak betetzen dituzten 230 aplikazio baino gehiago inskribatu dituzte garatzaileek. Erregistro hori beste bi foru aldundien erregistro publikoekin komunikatuta dago, eta 1.400 software produktu baino gehiago erregistratu dira, eta, beraz, horietako batean software bermatzaile bat inskribatzeak ahalmena ematen du hiru lurralde historikoetako edozeinetan erabiltzeko.

2026an honako ekintza hauek egingo dira:

a) Aurreko urteetan abian jarri ziren web orriaren funtzionaltasunak ezagutaraztea eta garatzen jarraitzea, zergadunen aitortpenak egitea errazteko, honako hauen bidez:

- Bidalitako fakturak kontsultatzea.
- Likidazio aldien arabera bidalitako fakturen zerrenda deskargatzea.
- Aitorpenen laburpena.
- Jasotako fakturen zerrenda kontsultatzea.

Bereziki zabalduko da aurkeztutako autolikidazioak TicketBAI sistemaren bidez jakinarazitako datuen emaitzekin alderatzean datzan erabilgarritasuna.

Aurtengo berrikuntza gisa, web orrian atal hau jarri da: «Bezeraoa naiz. Nire fakturak». Bertan, Ogasunari jakinarazi zaizkion fakturak kontsulta daitezke, non hartzaile gisa agertzen den. Tresna honen helburua aitortpenen aurkezpena erraztea da, jarduerari eragiten dioten erosketak eta gastuak erkatzeko aukera emanda.

b) Arabako Foru Ogasunak berak eskuataratzen duen aplikazioa (FakturAraba) garatzen eta hobetzen jarraitzea, fakturak formatu elektronikoa egiteko aukera gehituta, bai administrazio publikoentzat, bai gainerako hartzaileentzat, kontuan hartuta aurten Ef4kturrek aukera hori eskaintzeari utziko diola eta beste erabilgarritasun batzuk bere gain hartuko dituela.

c) IZENPERekin koordinatzen jarraitzea, TicketBAI fitxategiak sinatzeko betekizunaren funtzionaltasuna ziurtatzeko.

d) TicketBAI sistemari loturik dauden enpresaburuek eta profesionalak fakturak behar bezala eman eta entregatu dituztela egiaztatzeko jarduketak egiten jarraitzea, bai eta fakturei dagozkien fitxategiak bidaltzen ere, zergadunei informazioa eta laguntza emanez.

e) Jasotako TicketBAI fitxategiak kontrolatzea eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Sozietateen gaineko Zergari dagozkien aitortpenetan eta autolikidazioetan jasotako datuekin alderatzea eta aztertzea.

f) Fakturazio betebeharreri eta horiek behar bezala betetzeari buruzko informazioa ematen jarraitzea, TicketBAI sistemaren bidez, eta arreta berezia jartzea web orriaren funtzionaltasunen erabileran, bai eta FakturArabarenean ere, akatsak zuzentzeko. Informazioa hainbat arreta bide erabiliz emango da, eta, bereziki, web orriko edukiak zabalduz eta eguneratuz, ohiko galderei eta erantzunei buruzko atala bereziki kontuan hartuta, bai eta kolektibo sektorialekin informazio bilerak eginez ere, zergadunek betebeharrak berriak betetzeari buruzko zalantzak ahalik eta azkarren eta osatuen argitu ahal izan ditzaten.

g) Zergadunei laguntzen jarraitzea, bai TicketBAI sistema betetzen, bai fakturazioarekin berearekin eta aitortpenak egitearekin zerikusia dutenak betetzen. Era berean, softwarea garatzen duten enpresekin komunikazio erregularra izaten jarraitzea, banatzen dituzten softwareek behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzeko eta sistemaren baliozkotzeak ez betetzeagatik sortzen diren erroreak eta errefusak minimizatzeke.

II. Iruzur Fiskalari Aurre Egiteko Plataforma Teknologiko Bateratua.

Iruzur fiskalaren aurkako borrokaren hedapen teknologikoa bi maila osagarritan egituratzen da.

Alde batetik, banakako egiaztapenaren esparruan, ikuskatzaileei laguntzen dieten informatika auditoretzako tresnek aukera ematen dute administrazioan eskuragarri dagoen informazioa eta egiaztapen prozeduran emandakoa modu eraginkorrean integratzeko, bateratzeko eta aztertzeko. Sistema hori etengabe eguneratzen ari den saiakuntza banku batean oinarritzen da, eta identifikatutako datu iturri eta control eredu berriak gehitzen ditu apurka-apurka. Inguruabar horretan, TicketBAI sistema ezartzeak aurrerapen nabarmena ekarri du, saltokien informazioa homogeneousatu eta gardentasuna indartu baitu, bai zergak ordaintzera behartuta dauden pertsonentzat, bai administrazioarentzat berarentzat.

Bestalde, Iruzur Fiskalari Aurre Egiteko Plataforma Teknologiko Bateratuaren helburua da azterketa zerga betebeharra duten pertsona guztietara zabaltzea. Azterketa deskribatzaileko teknikak baliatuz, zergadun bakoitzak bere jarduera sektorearen eta dimentsio ekonomikoaren arabera espero duen portaera ezaugarritu nahi da. Horretarako, zerga datuak, oro har, diruzkoak, konparagarritasuna errazten duten adierazle sintetiko bihurtzen dira —batez ere, ratioak—. Adierazle horiek zergadunaren portaera ekonomikoaren funtsezko dimentsioak atzematea ahalbidetzen dute, eta antzeko unitate ekonomikoekin alderatzea errazten dute.

Prozesu horrek zerga nagusien aitortpenak (BEZa, Sozietateen gaineko Zerga, PFEZa eta atxikipenak, besteak beste) jarduera ekonomikoaren funtsezko aldagaiak islatzen dituzten adierazle multzo txiki baina adierazgarri batean banatzea dakar. Bereziki, hainbat alderdi aztertzen dira, hala nola balio erantsia, errenta edo zerga saldoak sortzeko gaitasuna. Adierazle horien erabilera portaera eredu normalekiko desbideratzeak detektatzeko aukera ematen du.

Era berean, adierazle horietan oinarritutako hizkera komuna garatu da, Arabako Foru Ogasu-neko langileek modu operatiboan eta ulergarrian ezagutzen dituzten iruzur kasuen itzulpena errazten duena, etengabeko prestakuntza prozesuen bidez aztertzeko eta jarduteko gaitasuna sendotuz.

Hala eta guztiz ere, balio gutxi sortzea ez da, berez, iruzurraren zantzu nahikoa. Baldintza normaletan korrelaziorik izan beharko ez luketen beste aldagai batzuekin konbinatzen denean sortzen da haien garrantzia. Horregatik, azterketa deskribatzailearen ondoren, aldagai anitzeko analisi teknikak txertatzen dira, aldagaien arteko erlazio konplexuak identifikatzeko. Teknika horiek aukera ematen dute eredu atipikoak detektatzeko, non aldagaien konbinazio jakin batzuek, ustez independenteak, jokabide lotuak erakusten dituzten iruzur testuinguruetan.

Sistemak etengabe kalkulatzen ditu patro horiei lotutako hainbat mikroarrisku, eta arrisku adierazle erantsi batean integratzen ditu, zergadun bakoitzaren ezohiko portaeraren probabilitatea laburbiltzen duena. Arriskuaren adierazle erantsi horiek antzemandako mikroarriskuen konbinazio haztatuaren bidez eraikitzen dira. Horrela, modu objektiboan lehenetsuna ematen zaie posizio erlatiboa espero den portaeratik nabarmen aldentzen zaizen zergadunei.

Ikuspegi horri esker, gainera, identifikatutako iruzur-eredu berriak modu eraginkorrean errepika daitezke antzeko zergadunak detektatzeko tekniken bidez, adierazle espazioko hurbiltasunean oinarritutako klusterizazio-metodoak erabiliz. Osagarri gisa, zergadunen multzoak edo eragiketa homogeneousoak sortzen dira, eta espero den ezein eredura egokitzen ez diren kasuak identifikatzen laguntzen da. Era berean, ikuspegi horrek denboran portaera-aldaketak detektatzea errazten du, eta zergadunaren beraren ibilbide historikoarekiko desbideratzeak identifikatzea ahalbidetzen du, baita talde barruan duen posizio erlatiboa itxuraz egonkorra denean ere.

Beste alde batetik, harreman sareen azterketa hainbat erakunderen arteko loturak —pertsona fisikoak edo juridikoak, helbideak, aktiboak edo harreman ekonomikoak— irudikatzen dituzten grafoen egituretan oinarritzen da. Harreman horiek finantza transakzioak, merkataritza loturak, jabetza egiturak edo lan harremanak kontuan hartzen dituzte. Ikuspegi horri esker, portaera irregularren adierazle izan daitezkeen funtsezko nodoak, zeharkako konexioak eta egitura konplexuak identifika daitezke. 2026an sareak bistaratzeko tresnak eguneratzen jarraitzea aurreikusten da, haien gaitasun analitikoak handitzeko helburuz.

Aktibo digital berriak agertzen direnean, kriptoaktiboak kasu, behar-beharrezkoa da informazio iturriak finantza sistema tradizionaletik haratago zabaltzea. Arlo horretan, bloke kateak monitorizatzeko tresnak erabili behar dira, bai eta eragiketa horiek zergapeko pertsoneri esleitzeko gaitasunean aurrera egin ere. Era berean, Europar Batasunean eta ELGAN informazioa nazioartean trukatzeko egin berri diren garapenen ondorioz, ezinbestekoa da datu berri horiek tratatzeko eta ustiatzeko sistemak prestatzea.

Horrez gain, zerga betebeharrak dituzten pertsonen jarduerari buruzko informazio zehatza sartzan jarraitu behar da merkataritza elektronikoko plataformak digitaletan, zerbitzuak emateko plataformetan eta ordainbide elektronikoenetan. Informazio berri horrek nabarmen zabalduko ditu arrisku fiskala aztertzeke eskuragarri dauden aldagaiak, bereziki informazioa nazioartean trukatzeko mekanismo berrien testuinguruan.

Oro har, irtenbide teknologiko horiek aukera ematen dute arrisku fiskala ebaluatzeko eredu zehatzago eta dinamikoago baterantz aurrera egiteko, antzeko zergadunei buruzko informazio konparatiboa eta banakako portaeraren analisi ebolutiboa emanez. Ikuspegi horrek ezohiko portaerak detektatzeko gaitasuna hobetzeaz gain, kontrol baliabideak modu eraginkorragoan baliatzea ere ahalbidetzen du, erregularizatzeko probabilitate handiena duten jarduketak lehenetsiz eta ikuskapen jardueraren inpaktua optimizatuz.

Tresna horiek —adierazle aurreratuetan eta harreman ekonomikoen azterketan oinarrituak— pixkanaka txertatzen ari dira Arabako Foru Ogasuneko langileen lan tresnetan. 2026. urtera begira, plataformak sendotzen eta hobetzen jarraituko dugu, zerga kontrolaren ziklo osoa osorik betez: zergadunen plangintza eta hautaketatik hasita, ikuskaritza laguntzeraino, eta, bidenabar, atzemate ereduak eta patrioiak etengabe hobetzeko aukera ematen duten atzeraelikatze tresnak txertatuz.

III. Informazioaren Berehalako Hornidura (SII).

2018an, BEZa kudeatzeko Informazioaren Berehalako Hornidura (SII) sistema hasi zen indarrean Araban.

Sistema horrek subjektu pasibo jakin batzuentzat (hau da, hileko itzulketen erregistroan inskribatutakoentzat, enpresa handientzat eta BEZaren taldeentzat) zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Ogasunaren egoitza elektronikoen bidez kudeatzea ezartzen du, aldi labur batean fakturazio erregistroak hornituz, eta horrek fakturatutako jarduera berehala ezagutzea ahalbidetzen du.

SII sistema abian jarri zenean, BEZa kudeatzeko sistema aldatu zen, eta, horri esker, egiaz-tapen hurbilagoak egin ahal izan dira benetan egiten den uneari dagokionez.

2026an, gainerako foro ogasunekin eta Zerga Administrazioaren Estatu Agentziarekin batera, sistema honi atxikitako subjektu pasiboaren fakturazio erregistroetako zerga administrazioen arteko informazio trukea lantzen jarraituko da, eta SIIren bidez eskuragarri dagoen informazioa lortzeko eta ustiatzeko tresnak egokitzen jarraituko da.

IV. Zerga Berezien Kontabilitate Liburuen Berehalako hornidura (SILICIE).

2020ko urtarrilaren 1ean indarrean hasi zen zerga berezien xede diren produktuen kontabilitatea eramateko betebeharra, eta, hala badagokio, horiek lortzeko erabilitako lehengaiena, Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoen bidez, fabriken, gordailu fiskalen, biltegi fiskalen, harrera gordailuen eta ozpin fabriken titularrek kontabilitate idazpenak elektronikoki hornituz.

Kontabilitate liburuak eramateko sistema horrek aukera ematen dio Arabako Foru Ogasunari zerga iruzurraren kontrola eta prebentzioa errazteko informazio nahikoa eta kalitatezkoa izateko, lehentasunezko helburuak baitira, eta zergadunei laguntza tresna bat ematen die beren betebeharrak betetzen laguntzeko.

2026an, sistema honen bidez eskuragarri dagoen informazioa aztertzeke eta ustiatzeko aurreko urteetan hasitako jarduerak finkatuko dira, eta analisi berriak sustatuko dira aurreko urteetan lortutako esperientzian oinarrituta.

2) Ikastetxeetan, zerga hezkuntzako proiektua finkatzea eta haren aplikazio eremua zabaltzea 2025-2026tik aurrera, ikasleen adin txikiagora.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren lehentasunezko helburuetako bat iruzur fiskala justifikatzen duten jarrera sozialei aurre egitea da. Horretarako, beharrezkotzat jo izan da finantza publikoak eta zergen funtzioa hobeto ulertzeko informazioa gizarteari helaraztea.

Horrekin, zerga betebeharrak borondatez betetzea bultzatu nahi da, herritarrek zerga iruzurrak dakartzan bidegabekeriak eta ondorio kaltegarriez kontzientziatuz, eta, gainera, funts publikoen erabilerari buruzko ezagutza sustatuz: zer zerbitzu ematen diren ekarpenei esker eta nola laguntzen duen Araba lurralde solidarioagoa eta orekatuagoa izan dadin lortzen.

Helburu hori betetzeko, 2017an, gizarte eta tributuei buruzko programa bat jarri zen abian. Programa horretan, Foru Ogasunak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin eta Ogasun eta Ekonomia Sailarekin lankidetzan aritu ziren eta, programaren bidez, ekonomiari eta fiskalitateari buruzko unitate didaktiko bat prestatu zen ikastetxeentzat lantzeko, eta, hala, txikitatik, zerga arloko iruzurrezko jokabideak deslegitimatu ziren ikasleen kontzientzietan.

Horrela, hezkuntza moduluan fiskalitateari, foru zerga sistemari eta zergen xedeari buruzko oinarritzko ezagutzak azaltzen dira, konpromiso jarrerak sendotzeko, zergen gizarte balioa eta gastu publikoarekiko lotura nabarmenduz.

Programa, hasiera batean, DBHko 4. mailatik aurrerako ikasleentzat antolatu zen, eta 2017-2018 ikasturtean eman zen lehen aldiz, hala eskatu zuten ikastetxeetan. Programa kudeatzeko eta abian jartzeko, zerbitzu kontratu bat formalizatu zen, erakunde arteko hitzarmenean bertan aurreikusten zen bezala. Harrezkero, hitzarmena luzatuz eta berrituz joan da, eta etenik gabe aritu da lanean 2025-2026 ikasturtera arte. Zerga hezkuntzako programa pixkanaka zabaltzen joan da, ikastetxe gehiagotan eta ikasle gehiagori emateko.

Hitzarmenaren berrikuntzarik handiena 2025eko urtarrilaren 21ean egin zen, «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foro aldundien arteko hitzarmena, 2025-2026 eta 2026-2027 ikasturteetan Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan ekonomiari eta fiskalitateari buruzko unitate didaktiko erkidea ezartzeko». Hitzarmen horrek 2028-2029 ikasturteraino beste bi ikasturtez luzatzeko aukera aurreikusten du, eta, oro har, segida ematen die aurrekoei, nahiz eta aplikazio eremuan aldaketa esanguratsua gertatu dela aipatu behar den. Aldaketa horren funtsa da programa Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrera emango dela, hiru prestakuntza-modalitate bereiziz: i) Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak, ii) DBHko 1. eta 2. mailak eta iii) DBHko 3. eta 4. mailak, Batxilergoa eta Erdi Mailako Lanbide Heziketa.

Abian den ikasturteari dagokionez, 2025-2026 ikasturtean, 2026an, parte hartzen duten erakundeek, foro ogasunek eta Eusko Jaurlaritzak programaren garapenaren jarraipena eta aldizkako kontrol zehatza egiteko ohiturei eutsiko diete, hitzarmenaren jarraipen eta balorazio batzordearen bitartez. Batzorde horrek bost bilera egin ohi du urtean. Era berean, 2025-2026 ikasturtea amaitu eta emaitzak ebaluatu ondoren, hitzarmen berrian unitate didaktikoa emateko aurreikusitako laguntza zerbitzuak kontratatu eta gero, 2026-2027 ikasturterako izena emateko kanpainari dagozkion sustapen-ekintzak abiaraziko dira.

Arabako Foru Ogasunaren helburua unitatea ematen duten ikastetxeen kopurua handitzea da, Arabako 70 ikastetxetara iritsi nahian. Horrek esan nahi du DBHko 3. eta 4. mailetan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan aurreikusten den estaldura tasa ehuneko 61ekoa izango dela, eta Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. Mailetan eta DBHko 1. eta 2. mailetan, aldiz, aurreikusten den estaldura tasa ehuneko 25ekoa izango dela lurraldeko ikastetxe guztien kopuruarekin alderatuta.

3) Informazio eta laguntza zerbitzuak ematea, zerga betebeharrak borondatez bete daitezela sustatzeko, bai eta funtzionarioen prestakuntza espezifikoa sustatzeko ere.

Arlo horretako helburua, 2026an, autolikidazioak eta aitorpenak egitean zergapekoei ematen zaien laguntza hobetzen jarraitzea izango da. Arabako Foru Ogasunaren iritziz, oso garrantzitsua da zergadunei laguntza ematea, aurre egin beharreko administrazio kargak murrizteko, zerga betebeharrak borondatez betetzea erraztuz eta, beraz, ez-betetzea edo gaizki betetzea prebenituz.

Zehazki, autolikidazioak egiteko laguntza programen bidez indartuko da laguntza, autolikidazio horiei Arabako Foru Ogasunean dauden eta zerga garrantzia duten datuak, hirugarrenek jakinarazitakoak, inportatu ahal izateko. Era berean, zergadunei helarazitako informazio fiskalean hobekuntzak txertatuko dira, bai eskura dituzten datuen kopuruan, bai kalitatean.

Ildo horretan, Arabako Foru Ogasunak prestatutako web aplikazioa nabarmendu behar da, TicketBAI sistema betez bidalitako fakturen kontsultari buruzkoa. Aplikazio horri esker, zergadunek Arabako Foru Ogasunari igorritako eta bidalitako fakturen zerrendak eta laburpenak lor ditzakete, BEZaren eta sozietateen gaineko zergaren aitortpenak aurkeztea errazteko. Ildo horretan, Arabako Foru Ogasuna lanean ari da zergadunei jaulkitako fakturei buruzko BEZaren zirriborroak emateko.

Azkenaldian, teknologia berrien erabilera ikaragarri bizkortzen ari da, zergadunek zerga administrazioekin dituzten harremanetan aurrez aurreko laguntza baliabide tradizionalen aldean, eta 2026an ere prozesu hori bultzatzen jarraituko da. Horrek badakar aitortpenak aurkezteko kanal telematikoa orokortzea, identifikazio elektronikoko sistemak aktibatzea erraztuz, hala nola Bak ziurtagiria.

Bestalde, jarduketa kategorია horren barruan kokatzen da, halaber, alde zuzeneko administrazio loturako prozeduren erabilera, gure zerga zuzenbidearen segurtasun juridikoko eta ziurtasuneko giroa ezartze aldera, bere jarduketaren zerga ondorioen egonkortasun, konfiantza eta aurreikusgarritasun berme nahikoak emango dituen eragile ekonomiko guztientzat.

Barne prestakuntzari dagokionez, zergen eremuak beharrezkoa duen etengabeko prestakuntzaz gain, berariazko gaiei buruzko prestakuntza indartuko da, hala nola nazioarteko fiskalitateari, negozio berrien fiskalitateari edo ekonomia digitalari buruzko eragiketei buruzko prestakuntza, edo egiaztatzen prozeduretan informatika auditoretzako tresnak eta teknikak erabiltzeari buruzkoa.

4) Aurreko urteetan bezala, jarduera hauek egiten jarraituko da:

a) Erkidego Barruko Operadoreen Erregistroan sartzeko eskaerak kontrolatzea eta erregistro horretan sartutako operadoreen jarraipen lanak egitea, dagoeneko erregistratuta dauden operadoreen kautelazko bajak edo sarbide eskaerak ukatzeko.

Erkidego barruko eragiketak egiten dituzten operadoreen kontrol egokia ezinbestekotzat jotzen da erkidego barruko BEZ zergan iruzur tramak egon daitezen saihesteko.

b) Hileko Itzulketen Erregistroan sartzeko eskaerak kontrolatzea eta erregistro horretan sartutako operadoreen jarraipena egitea, bai dagoeneko erregistratuta dauden operadoreei sartzeko edo kautelazko baja emateko eskaerak ukatzeko, bai iruzurrezko jardunbideak egiten dituzten operadoreei BEZa itzul dakien saihesteko.

c) Era berean, Gordailu Fiskalen Ateratzailen Erregistroa (REDEF) kontrolatuko da, erregistro horretan sartuta dauden baina zerga betebeharrak betetzen ez dituzten sozietateak detektatzen saiatzeko.

Produktuak gordailu fiskaletatik ateratzeari dagokionez, eta hidrokarburoen merkatuko iruzurrari aurre egiteko, BEZa arautzen duen araudiak ezartzen du nahitaezkoa dela BEZaren diru sarreren berme bat eratzea edo, are gehiago, aduanaz bestelako gordailu araubideari uzten dioten erregai jakin batzuentzat sortzen den zergaren ordainketa aurreratzea. Hala eta guztiz ere, betebeharrak horretatik salbuetsita daude produktuen gordailugileak edo gordailu fiskal jabeen titularrak, operadore ekonomiko baimenduaren edo operadore fidagarriaren izaera aitortua dutenean.

2026. urtearen barruan arauz garatuko dira aldaketa horiek guztiak, eta, zehazki, operadore fidagarriaren izaera aitortzeko prozedura onartuko da. Halaber, operadore fidagarrien erregistroa sortzea eta mantentzea arautuko da.

Aldaketa horien osagarri, gordailu fiskaletako produktuak ateratzen dituzten enpresa guztiek hileroko aurkeztu behar dute BEZaren autolikidazioa. Ondorioz, Arabako Foru Ogasunak arauketa berri horretatik eratorritako betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko jarduketak egingo ditu.

d) Zergadunek enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan alta, aldaketa eta baja emateko aitorpenetan jakinarazitako datuen egiazkotasuna ziurtatzea, eta, bereziki, zergapekoek aitortutako zerga helbideena, bizilekutik atzerrira aldatu izanaren jakinarazpena barne.

Zehazki, helbideratutako sozietate kopuru handia duten establezimenduak edo lokalak identifikatzeko jarduerak egingo dira.

e) Indarreko araudian ezarritako kasuren batean dauden erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakia errebokatzea.

f) Zergadunek oro har eskatutako informazio aitorpenak aurkezteko betebeharrak betetzen dituztela egiaztatuko da, foru-arauetan jasotako informazioa emateko betebeharra betez.

g) Arabako Foru Ogasunak aurreko urteetan egiaztatu dituen jarduera ekonomikoko sektoreetako zergadunen jarraipena egiten jarraituko da, jarduera horietan agerian jarritako errenta maila zergadun horiek geroago aurkeztutako aitorpenetan berdina dela egiaztatzeko.

h) Azken kontsumitzaileei ondasun emateak edo zerbitzu-prestazioak egiten dizkieten establezimenduek fakturak igortzeko eta entregatzeko betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko bertatik bertarako jarduketak egingo dira, bereziki eskudirua erabiltzen intentsiboak diren sektore ekonomikoetan.

Era berean, establezimendu horiek egindako jarduerak erregistratzen diren sistema informatikoen azpiegitura teknologikoaren erregistroen kontrolari eta analisiari buruzko azterketak egingo dira.

Ildo horretan, ezinbestekoa da TicketBAI sistemaren bidez lortutako informazioa eraginkortasunez ustiatzea eta kudeatzea.

j) Ogasun Publikoaren zordunen zerrenda argitaratzea, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 92. ter artikulua ezarritakoaren arabera.

Iruurrezko portaeren publizitatea, horrek dakarren gizarte seinalamenduagatik, zergadunek beren zerga betebeharrak borondatez bete ditzaten sustatzeko neurria da.

Adierazi behar da 2022an Arabako Foru Ogasunak Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aldatu zuela, eta beste modu batean idatzi zuela pertsona zergadunen zerrenda arautzen duen artikulua, zerrenda horren irismena eta disuasio eragina handitzeko, zerrenda horretan agertzeko zenbatekoa 1.000.000,00 eurotik 600.000,00 eurora jaitsita eta zerrenda horretan erantzule solidarioak berariaz gehituta. Neurri horrez gain, kasuan kasuko organo judizialek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dituzte Ogasun Publikoaren aurkako delituengatik kondenatzeko epai irmoak.

2.3. ERREGULARIZATZEKO ETA KOBRAZKEKO JARDUKETAK.

Jarduketa horien helburua da kudeaketa eta ikuskapen organoek garatutako tributuen aplikazio prozeduren xede diren pertsonen eta erakundeen zerga egoera egiaztatzea, ikertzea eta, hala badagokio, erregularizatzea, bai eta zerga bilketako organoek zergapekoek ordainketa lortzeko egindako jarduketak ere, bai borondatezko aldian, bai betearazpen aldian.

Erregularizazio jarduketan helburua iruzurra egin ondoren kuantifikatzea eta zehatzea da, eta berriro egin ez dadin konbentzitzeko balio dute.

Jarduera horien arrakasta, neurri handi batean, Arabako Foru Ogasuneko organoek egiaztatzen dituzten pertsonak eta erakundeak behar bezala hautatzeari loturik dago; beraz, jarduketa horiek, askotan, informazioa lortzeko jarduketetan Zerga Administrazioak lortutako zergen arloko informazio garrantzitsuaren kalitatearen eta hedaduraren ondorio dira.

Era berean, kudeaketa eta ikuskapen organoek agerian jarritako zerga zorra kobratzeko, askotan, zerga bilketako organoek informazio egiazkoa eta osoa izan behar dute ordaintzera behartuta dauden pertsona guztiei buruz, bai zordun nagusiak badira, bai lehenengoekin lotutako erantzule solidarioak eta subsidiarioak badira ere.

Ondorioz, Zerga Administrazioako organoen arteko lankidetzaren estua elementu erabakigarria da helburuak lortzen direla bermatzeko.

2026an, auditoretza informatikoko tresnen erabilera sustatzen jarraituko da, anomalia fiskalak modu eraginkorragoan aztertzeko eta detektatzeko, eta beharrezko ebidentziak lortzeko, ikuskatzaileek kontabilitateko egoera orrien eta zerga aitortzen diren sistema informatikoetako eragiketa ekonomikoaren erregistroaren edo idazpenen osotasunari eta zehaztasunari buruzko iritzi oinarritua izan dezaten.

Horrela, ordenagailuz lagundutako auditoria tresna (CAAT) erabiltzen jarraituko da. Pertsona jarduleek 2007tik erabiltzen dute tresna hori, eta etengabeko hobekuntza izan du handik hona. Tresna horrek aukera ematen du egiaztapen prozeduretan lortutako mota guztietako datuen analisi informatikoa errazteko, ebidentzia elektronikoen trazabilitate eta babes egokiarekin, horiek prozedura administratibo eta judizialean aurkezteko.

Era berean, bulegoetan, negozio lokaletan eta jarduera ekonomikoak garatzen diren gainerako establezimendu edo tokietan egiaztapen eta ikerketa jarduketak egitea bultzatuko da, eta ahal den neurrian, auditoretza informatikoaren kontrolak erabiliko dira. Zenbait kasutan, jarduketak horiek gainerako lurraldeetako zerga-administrazioekin koordinatuta egin ahal izango dira.

Erregularizatzeko eta kobratzeko jarduketak 2026an garatuko dira, honako eremu hauetan:

1) Enpresa taldeen kontrola.

Enpresa talde handietan arrisku handiena izan dezaketen zerga gorabeheren kontrol espezifikoak egingo dira.

Illo horretan, nazioartekotutako enpresa taldeek zergak saihesteko egiten dituzten jardunbideak arakatuko dira, hitzarmenen abusuaren bidez edo eragiketak baloratuz edo lokalizatuz, lurralde historikoan tributazioa murrizteko xedez, bai eta guztiz artifizialak diren sozietate egiturak sortuz ere, helburu bakarra baitute, hain zuzen ere, zergak saihestea.

2) Talde fiskalen kontrola Sozietateen gaineko Zergan. Zerga baterakuntzako araubide bereziaren aplikazio zuzena aztertuko da kontsolidazio perimetroa zehaztean, ezabaketetan, zerga oinarri negatiboan txertaketa eta konpentsazioan eta kenkarien aplikazioan.

3) Jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten pertsonak edo erakundeak aitortutako etekin kontrol osoa, batez ere honako inguruabar hauetakoren bat atzematen denean:

a) Etekin txikiak edo jarduera sektorearen edo negozio ereduaren batez bestekoa baino nabarmen txikiagoak deklaratzeko.

b) Irregularitasunak detektatzea kreditu txartelen bidez kobratzeko kudeaketa sistemari atxikitako gailuen titularretan, eskudirutan kobratzeagatik edo konturako sarrerengatik.

c) Eduki ekonomikorik ez duten fakturak daudela edo Balio Erantsiaren gaineko Zergarekin eta Zerga Bereziekin bereziki lotuta antolatutako iruzur trametan parte hartu dela adierazten duten zantzuak badaude.

d) Balio erantsi handiko eta arrisku fiskal handiko sektoreetan jarduerak egiten dituzten zergadunak badira, edo eragiketen kobrantzaren ehuneko handi bat eskudirutan egiten badute edo azken kontsumitzaileei bideratzen bazaie.

e) Pertsona fisikoaren zerbitzu oso pertsonalak fakturatzeko sozietateen sorrerari buruzko kontrol jarduketak.

f) Zergadunek Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergan edo Sozietateen gaineko Zergan aitortutako gastu pribatu ez-kengarriak detektatzeko jarduketak, etekin garbia behar ez bezala murrizten dutenak.

g) Informazioa emateko betebeharretatik kanpo geratzen diren finantza zerbitzu deszentralizatuak eskaintzen dituzten erakundeak aztertzea, erakunde horien bidez jarduten duten balizko zergadunak detektatzeko, horien erabilera elusio edo iruzur egiteko bide bat izan ez dadin.

h) Sozietateen gaineko zergaren zergadun bat mikroenpresatzat hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko jarduerak.

i) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi sinplifikatuan sartutako zergadunen azterketa, edo, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako, beren jarduera ekonomikoaren etekin zehazten dutenak zuzeneko zenbatespeneko araubidearen modalitate sinplifikatuaren bidez.

4) Zergen autolikidazioa aurkeztu ez duten eta hori egin behar izan ez duten, zergen itzulketak eskatu dituzten edo zergaldi edo aitorpenaldi batzuetan behin eta berriz konpentsatu beharreko kopuruak egiaztatu dituzten zergapekoen kontrola.

5) Autolikidazioak kontrolatzea, baldin eta autolikidazio horietan zerga onurak egiaztatzen badira, onura horiek sortze ekitaldian bertan aplikatzekoak izan edo ez, edo aurreko aldietan egiaztatutako kenkariak edo bestelako zerga pizgarriak finkatzeko baldintzak betetzeko epeak amaitzen badira.

6) Sozietateen gaineko Zergaren zerga oinarrian zenbateko nabarmenetan egindako doikuntzen kontrola eta beste aldi batzuetan egindako doikuntzen ondorioz egin behar zirenen jarraipena.

7) Loturiko pertsonen edo erakundeen arteko eragiketak kontrolatzea, substratu ekonomikorik ez duten edo merkatukoaren oso bestelako balio nabarmenean egiten diren eragiketak detektatzeko, kontuan hartuta, bereziki, Auzitegi Gorenaren epai berrienetan finkatutako interpretazio irizpideak eta ELGAK gai horri buruz egindako jarraibideak.

8) Aitorpenetan inkoherentzia nabarmenak dituzten zergapekoak kontrolatzea, zerga administrazioek duten informazioaren arabera, TicketBALren bidez aitortutako informazioa barne.

9) Zergadunek zerga administrazioari aitortu gabeko ondasunak eta eskubideak daudela antzematea, edo, aitorpena jaso arren, ondasun eta eskubide horien edukitza ez etortzea bat zergaldian aurkeztutako aitorpenetan aitortutako etekinekin. Ildo horretan, nazioarteko informazio trukeak eta atzerriko ondasun eta eskubideen 720 erduan eta atzerrian jarritako diru birtualari buruzko 721 erduan aitortutakoak agerian jar ditzaketen inkongruentziak azpimarratuko dira.

10) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren VI. tituluaren VII. kapituluko zerga araubide berezia eskatu ala ez, bat-egite, zatiketa, diruzkoa ez den ekarpen eta sozietate egoitza aldatzeko eragiketak aztertzea, zerga garrantzia dela-eta, eta betebeharrak formalak eta materialak betetzen diren aztertzea.

11) Atxikipenak eta konturako sarrerak egitera eta ordaintzera behartuta dauden pertsona fisiko edo juridikoen kontrola, eta, bereziki, dieta gisa aitortutako zenbatekoena edo enpresa ordaintzaileek beren langileei atxikipen eta kargatik salbuetsitako beste ordainsari batzuen.

12) Txkeak kobratu edo diru mugimendu handiak egin dituzten zergapekoak kontrolatzea. Ildo horretan, eragiketa mota horien mugak betetzen ez dituzten eskudiruzko ordainketak ote dauden ikertuko da, Sozietateen gaineko Zergan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan kengarriak ez diren gastuak detektatzeko, kontuan hartuta eskudirutan, gehienez ere, 1.000,00 euro ordain daitezkeela.

13) Jarduera ekonomiko bati lotuta ez dauden eta, batez ere, errenta pasiboak lortzen dituzten ondasunez osatutako aktibo gehienak dituzten sozietateen eta erakunde horietako bazkideen tributazio zuzena egiaztatzea, izaera horrek eragiten dien zerga guztietan.

14) Erakundeak desgitean eta likidatzean zergak zuzen ordaindu direla egiaztatzea.

15) Diru birtuala erabiliz egindako eragiketetatik lortutako irabazien eta kriptoahtiboetatik eratorritako beste edozein etekinen tributazio zuzena egiaztatzea.

16) Eragiketa bolumenean zerga administrazio bati baino gehiagori zergak ordaintzen dizkieten erakundeek aitortutako tributazio ehunekoak behar bezala aplikatzen direla egiaztatzea, lurralde erkidekoak nahiz foru lurraldekoak izan, eta, oro har, Ekonomia Itunean ezarritako ordainarazpen arauak behar bezala aplikatzen direla egiaztatzea, bereziki, Arbitraje Batzordearen ebazpen berrienetan eta Auzitegi Gorenaren epaietan finkatutako interpretazio irizpideak kontuan hartuta.

Era berean, kontuan hartu behar da, apirilaren 29ko 3/2025 Legean xedatutakoaren arabera, eragiketen bolumenaren atalasea 10 milioi eurotik 12 milioi eurora igo zela, zerga egoitzaren arabera, establezimendu iraunkorra duten zergadunentzat SZ, BEZ eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga ordainarazteko eta egiaztatzeko eskumena zehazteko.

Arabian lantokiak dituzten, langile kopuru handia duten eta Arabako Foru Ogasunean Sozietateen gaineko Zergaren edo BEZaren aitortpenik aurkeztu ez duten sozietateak aztertuko dira.

17) Egoiliarrek ez diren pertsonak Arabako Lurralde Historikoan egiten dituzten jarduerengatik dituzten zerga betebeharrak egiaztatuko dira.

Espainiako lurraldean bizi ez diren pertsonak lurralde historikoan egiten dituzten jarduerengatik ordaindu beharreko zergak egiaztatzeko jarduketak egingo dira, establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrei egindako ordainketengatik jaso gabeko atxikipenena, bereziki, erregularizatzeko asmoz.

Era berean, arreta bereziz aztertuko dira pertsona fisikoek jurisdikzioetan egindako helbide aldaketak, baldin eta Arabako Lurralde Historikoan legokiokeena baino askoz tributazio txikiagoa badute.

18) Fabrikazioko eta ingurumeneko zerga berezien ondorioetarako erregistratutako fabriken, gordailu fiskalen, biltegi fiskalen edo establezimenduen kontrola.

Hidrokarburoen gaineko Zergari dagokionez, zerga horren xede diren ondasunak banatzeko eragiketak kontrolatzeko eta ikertzeko jarduerak bultzatuko dira, bereziki zerga salbuesteko eta karga-tasa murriztuak aplikatzeko kasuak behar bezala aplikatzen direla ziurtatzeko, eta zerga horren, BEZaren eta SZaren iruzurra egiteko sortutako enpresen sare antolatuak ahalik eta lasterren saihesteko eta detektatzeko.

19) Higiezinaren negozioei doakien tributazioaren kontrol osoa, eskualdatzeetatik eta errentamenduetatik eratorritakoa barne. Zehazki, subjektu pasiboak BEZean inbertitzeko tresna behar bezala aplikatzen dela egiaztatuko da.

20) Europar Batasuneko barne eremutik nahiz beste estatu batzuetatik datozen ibilgailuen eskualdaketa kontrolatzea, Balio Erantsiaren gaineko Zergan, Garraiobide jakin batzuen gaineko Zerga Berezian eta beste zerga batzuetan iruzurra egin dadin saihesteko.

21) Europar Batasuneko beste estatu kide batean helbide fiskala duten beste operadore batzuen VIESen (Europar Batasunaren barruko eragiketei dagokien BEZari buruzko Informazioa Trukatze Sistema) bidez Erkidego barruko eskuraketen egozpenak dituzten zerga obligazioa duten pertsonen tributazio zuzena ikertuko da. Zehazki, erkidego barruko eskuratze horietan jatorria duten aitortu gabeko barne-salmentak dauden aztertuko da.

Nolanahi ere, erregularizazio jarduketei dagokienez, Ogasun Publikoaren aurkako delituen zantzurik hautemanaz gero, Arabako Foru Ogasunak dagozkion txostenak helaraziko dizkio Fiskaltzari, hark, egoki baderitza, dagokion salaketa aurkez dezan.

22) Bilketa aldiaren iruzurra kontrolatzea.

2026. urtean, zerga bilketaren arloko oinarrizko jardun ildoek bi helburu nagusi izango dituzte. Alde batetik, zerga betebeharrak bete daitezten erraztea, zergadunei informazioa eta laguntza emanez, behartutako pertsonak ordaintzeko betebeharra berez bete dezaten, nahiz eta hori berehala ez gertatu.

Bestalde, dirua biltzeko aldiaren dauden iruzurra jazartzeko jarduketek, ordaintzeke dauden zorrak kobratzeko bideratzeaz gain, disuasio efektua edo pizgarria kentzeko efektua ere izan behar dute, iruzurrezko jarduketaren bidez ordainketa saihesten saiatzen diren pertsonentzat.

Horrela, lehen azaldu den bezala, Zerga Bilketako arlotik urtero argitaratuko da ordaindu gabeko zor eta zehapenengatiko zenbateko esanguratsuen zordunen zerrenda. Neurri hori kontzientzia fiskal kolektiboa indartzeko bidea da; izan ere, gizarte gaitzespen handia duten portaeren berri ematen du, zerga betebeharrak borondatez betetzea helburu duten prebentzio eta hezkuntza tresnen esparruan.

Beraz, 2026an, diru bilketako aldiaren eremu guztietan, honako jardun ildo hauek lehenetsiko dira:

1. Zerga zorrak ordaindu behar dituzten pertsonen jarraipena eta kontrola.

Zordunei edo lotutako hirugarren pertsoneri dagokienez, iruzurraren aurkako borrokaren helburua da zerga zorrak kobratzea ahalbidetzen duten ondasunak eta eskubideak aurkitzea, bai eta ondare hustuketak eta bestelako iruzurrezko eragiketak detektatzea ere, zorrak ez ordaintzeko. Ondarea ikertzeko jarduketa horiek ondoko helburuak dituzte:

– Beste arlo batzuekiko lankidetzak jarduerak areagotuko dira, jarduketak aurreratzeko eta egiaztapen prozeduretan azaleratutako zorrak ziurtatzeko.

– Zorraren kobrantza ziurtatzeko eskaintako bermeen bideragarritasun juridiko eta ekonomikoa aztertuko da, batez ere geroratze zatikapenak emateari dagokionez eta diru bilketako prozedura eteteko eskaeretan eta konkurtso prozeduretan.

– Ondare ezkutatzeko eta hustuketak hautematea, zordunek ondasunak eta eskubideak eskualdatzeko, dohaintzak egiteko, jarauntsiei uko egiteko eta antzeko beste eragiketa batzuk egiteko egindako eragiketak kontrolatuz eta berrikusiz. Jarduketa horiek ondasunak ostentzea dakarten jokabideak agerian jartzea sorraraz dezakete, baita zigortzeko moduko kaudimengabezia gisa agertzea ere, bai zerga bilketako prozedura arrunten barruan, bai konkurtso prozeduren barruan.

– Banku kontuetan gauzatutako finantza mugimenduen eta saltokiko terminalen (ST) bilketaren ikerketa bultzatuko da, horien titularrek inolako jarduera ekonomikorik egiten ez dutenean.

– Ondare betearazpenak bultzatzea, enbargo eta enkante jarduerak eginez, zorrak kobratzeko nahiz hirugarren zordunen aurrean disuasio ondorioak izateko.

– Erantzukizun deribazioak hartzea. Bilketa aldiaren iruzurra prebenitzeko eta kontrolatzeko biderik eraginkorrena suertatu den tresnetako bat erantzukizuna bideratzea izan da, eta, oro har, hirugarrenei zorrak eskatzea. Aurreko urteetan bezala, 2026an ere hirugarren erantzuleak identifikatzeko eta zorrak ordaintzeko eskatzeko arauan aurreikusten diren egitatezko kasuak betetzen direla egiaztatzeko ikerketa jarduketak egiten jarraituko dugu.

– Kautelazko neurriak hartzea. Era berean, ondarea husteko jokabideen ondorioz edo zorrak kobratzea arriskuan jar dezaketen beste jokabide batzuen ondorioz ez ordaintzeko arriskua prebenitzeko eta horri aurre egiteko, arrisku hori arintzeko beharrezkoak diren kautelazko neurriak hartzea proposatuko da.

– Betearazpen aldiaren ordaintzeke dagoen zorra kontrolatzea. Ordaintzeke dagoen zorraren kontrol iraunkorra egingo da, bereziki, enbargo fasean dagoen zorrarena, diru bilketaren kudeaketa arintzeko eta, horrela, zorra murrizteko. Horretarako, ordaintzeke dagoen zor hori berrikusiko da, batez ere zaharrena, premiamendu prozeduraren amaiera arintzeko. Era berean, kaudimengabezia deklarazioak berrikusiko dira, eta kobraezintzat jotako zordunen kaudimengabezia egoerak bere horretan dirauela egiaztatuko da.

– Etendako eta geldiarazitako zorren kontrola. Geldiarazitako eta etendako zorren kontrol-eta jarraipen jarduketak egingo dira. Horretarako, bereziki berrikusiko dira errekurso edo erreklamazio bidez etendako zorrak edo epemugak, epaien eta ebazpenen betearazpena arinduz.

2. Erantzukizun zibilagatiko zorren ordainarazpena eta delitu fiskalengatiko isun-zigorak.

– Zergen Foru Arau Orokorrak erantzukizun zibilagatiko zorrak eta Arabako Foru Ogasunari agindutako isun-zigorak ordainarazteko eskaintzen dituen aukera guztiak erabiltzen jarraituko da. Arreta bereziz ikertuko dira kondenatuen jokabideak, organo judizialei jakinarazi behar bazaizkie ere, eta, hala badagokio, kartzelan sartzeko zigorraren etendura errebokatzeko eskatuko da, kaudimengabe izan gabe ordainketa betebeharrak betetzen ez badituzte, eta ondare ikerketa egokia egingo da.

3. Konkurtso prozeduretan eta aurrekonkurtso prozeduretan, bilketa jarduketak bultzatzea.

– Aurrekonkurtso eta konkurtso prozeduren barruan, kreditu publikoa defendatzeko beharrezkoak diren bilketa kudeaketako jarduketak sustatuko dira, bai hartzekodunen konkurtsoan, bai mikroenpresentzako prozedura berezian.

– Jarduketak lehiaketa prozedurak kudeatzeko ezartzen diren sistema telematiko berrietara egokitzea: Konkurtso Erregistro Publikoaren enkante ataria, mikroenpresen zerbitzu elektronikoa, mikroenpresen ondasunak likidatzeko plataforma eta abar.

– Akordio bereziak izapidetzea bultzatuko da, bai eta hitzarmen proposamenak, jarraipen planak eta ordainketa planak onartzea ere, ordaindu gabeko pasibotik behin-behinean salbuetsiz gero, eta, bete ezean, dagozkion jarduketak bide judizialean edo administratiboan gauzatuko dira.

– Konkurtso prozeduren eremuan, zerga betebeharrak betetzen direla zainduko da, kudeaketa eta ikuskapen organoekin koordinatuta, eta zorraren ordainketa kontrolatuko da, konkurtsoa, konkurtsoaren aurreko fasea, likidazioa eta hitzarmena gertatzen direnean, eta mikroenpresentzako prozedura berezia denean, bai jarraipen eta likidazio prozeduren kasuan.

– Masarik gabeko lehiaketen jarraipen berezia egingo da, iruzurrezkoak direnak antzemateko.

Azkenik, nazioarteko elkarrekiko laguntzari dagokionez, 2026. urtean, diziplina anitzeko ikuspuntu batetik -juridikoa, teknologikoa eta antolaketa eta koordinaziokoa- egin beharreko lanekin jarraituko dugu, Europa mailan garrantzi eta eraginkortasun handia duen tresna hori atzerrian ordaintzera behartuta dauden pertsonen jabetzako ondasunak eta eskubideak lokalizatzeke erabili ahal izateko eta ordaindu gabeko tributu kredituak kobra daitezen ahalbidetzeko.